BIZITEGI ERAIKINA — LERSUNDI JENERALA 5

D MAILA





Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1909

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta hiru goi oin dituena, gehi bi jasodura atzeraeman (lehena 1917koa eta bigarrena 1946koa). Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokiak dituena alboetako ertzeko baoetan. Erdisotoko baoa zabaldu egin da (inposta etenik) lokalera sartzeko.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (4. eta 5. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.